



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2025SUBV0010	
COD.EXP.	
EXPEDIENTEA EXPEDIENTE	DIRU-LAGUNTZA
TITULARRA TITULAR	GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA
NAN DNI	G20605242

**AZKOITIKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO ELIKAGAI
BANKUAREN ARTEKO HITZARMENA**

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina, Azkoitiako Udaleko Gizarte Ongizate Saileko zinegotzia-delegatua eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean, egintza honetan Azkoitiko Udal Idazkaria den Unai Urkijo Rodriguez parte hartzen duelarik, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren, Estatuko gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena, 3.2 i) artikuluen arabera.

Bestetik, Belen Mendez De Vigo Vega De Seoane (NAN 01353041-C), IFK G-20605242 duen GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA erakundearen izenean eta haren ordezkaritzan, helbidea PG Ugaldetxo, Zuaznabar 73 zk. Oiartzun (20180).

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioko aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikuluen arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA irabazteko asmorik gabeko elkarte da, 1997ko urriaren 3an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean AS/G/06970/1997 zenbakiaren inskribatuta dago.

III.- GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA elkarteak, bazterkeria egoera larrienean dauden azkoitiarrentzat xahutzeko dauden eta herritarrek behar dituzten elikagaiak jaso eta banatzen dituzte.

IV.- Lankidetzat hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA elkarteak jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK 2025. urterako 1.293€ko dirulaguntza eskatzen du kontuan hartuta 2025. urtean 18.791 kilograma produktu ez-galkor edo lehor banatu zirelako Azkoitiko udalerrian erakunde honen partetik. Zehazki, 183 pertsona adinekoak eta 9 adingabekoak.

Azkoitiko kasuan, eskatzen duten kopurua lotuta dago honako kalkulu ekonomikoari:

- a) 2025erako aurreikusitako kudeaketa gastua 470.000€ dira.
- b) Aipatutako 470.000€ horiei erakunde ezberdinek laguntza kontuan hartu behar dira (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, FESBAL, Elkarteko bazkideen kuotak).
- c) Aurreko puntuan zehaztutako laguntzak kenduta, 125.000€ geratzen dira Elikagaiak Banatzen diren Gipuzkoako 51 udalerrri daudela kontutan hartuta.
- d) Falta diren 125.000 euro horiek Gipuzkoako herri guztietan banatu dituen kilogramo kopuruarekin zatitzen da, konkretuki, 1.816.640. Horrek ematen du kilogramo bakoitzeko 0,0688 euro.
- e) Azkoitiko herrian 18.791 kilogramo banatu ziren $X 0,0688 \text{ euro} = 1.293\text{€}$.

Hortaz, diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, 2025. urtean elikagaiak behar dituzten azkoitiarrak daudelako, eta behar diren elikagaiak biltzeko kanpainak egiteko zailtasunak dituztelako, eta, beraz, elkarteak dituen gastuak finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.13 artikulua xedatutakoaren arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako dirulaguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA: Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2025. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA Elkarteari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK aurkeztu duen programa/proiektua aurrera eraman dezan: 2025. urtean ere elikagaiak behar dituzten azkoitiarrak daude eta zailtasunak egon dira aurreko urtean hainbat faktoreren ondorioz. Besteak beste, prezioen gorakada nabarmena egon da.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUari 1.293 euro dirulaguntza emango dio programa/proiektuan aurreikusitako ekintzetarako, 2025eko udal aurrekontuko partida honetatik: 4000.481.230.00.12 dirulaguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2025eko programa eta jardueren proiektua.
- 2025eko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.
- Aurkeztutako programa/jardueren proiektuaren arabera, GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA elkarteak honako ekintzak antolatu/aurrera eramango ditu: 2025. urtean 18.791 kilografo produktu ez-galkor edo lehor banatu zirelako Azkoitiko udalerrian erakunde honen partetik. Zehazki, 183 pertsona adinekoak eta 9 adingabeak. Azkoitiko kasuan, eskatzen duten kopurua lotuta dago honako kalkulu ekonomikoari:
 - a) 2025erako aurreikusitako kudeaketa gastua 470.000€ dira.
 - b) Aipatutako 470.000€ horiei erakunde ezberdinek laguntza kontuan hartu behar dira (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, FESBAL, Elkarteko bazkideen kuotak).
 - c) Aurreko puntuan zehaztutako laguntzak kenduta, 125.000€ geratzen dira Elikagaiak Banatzen diren Gipuzkoako 51 udalerri daudela kontutan hartuta.
 - d) Falta diren 125.000 euro horiek Gipuzkoako herri guztietan banatu dituen kilografo kopuruarekin zatitzen da, konkretuki, 1.816.640. Horrek ematen du kilografo bakoitzeko 0,0688 euro.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

e) Azkoitiko herrian 18.791 kilogramo banatu ziren X 0,0688 euro = 1.293€.

HIRUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programa/proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- a) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Gizarte Ongizate Sailari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- b) Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- c) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

LAUGARRENA: GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) Zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:

— Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.

2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:

— Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra:

— Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

BOSTGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

2025eko abenduaren 31an amaituko da dirulaguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, dirulaguntza emateko helburua bete duela zurriz eta jasotako dirulaguntza zertan erabili den **justifikatzeko epea 2026ko martxoaren 31an** amaituko da.

Justifikatzeko modua izango da Gipuzkoako Elikagai Bankuak **2025EKO AUDITERATZA ETA URTEKO KONTUEN TXOSTENA AUKEZTUTA**.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK Azkoitiko Udalaren eskura izango ditu dagokion ekitaldiaren balantzea eta ustiapen kontua, horretarako akreditatutako erakunde batek ikuskatuta, hala badagokio, beste erakunde publikok edo pribatu batzuek helburu bererako izan dituzten kudeaketa—gastuak eta diru-sarrerak eta diru-laguntzak egiaztatzen.

Era berean, Udalaren eskura izango ditu urtean zehar udalerrian parte hartzen duten gizarte entitateei emandako albaranak, eta bigarren klausulako ekuazioa aplikatzeko emandako datuak egiaztatzen, hala badagokio.

SEIGARRENA: Dirulaguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurriz izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK eduki ditzakeen gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA elkarteari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAN lanean ari diren langileez eta GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako legealorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAK.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- a) Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeak aukeraren inguruan.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAIKAGARRENA: Administrazioako auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarrekin diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Gizarte Ongizate Saileko
Zinegotzi-delegatua
Sonia Vazquez Tejerina

Gipuzkoako Elikagai Bankua
Lehendakariak
Belen Mendez De Vigo Vega De Seoane



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Unai Urkijo Rodriguez
Uda idazkaria

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKU0a79b44f-a125-4ba3-b6b8-9b61302fcbeF

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025SUBV0010-Hitzarmena/Convenio (GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA)